



# EKIN DIOTE JOSEAN TOLOSA TXAPELKETARI

Atzo hasi eta irailera bitarte, Amezketako pilotalekuan maila handiko pilota partidak ikusteko aukera izango da »5

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Igandea**  
**2008-07-06**

VIURTEA 1.479.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

**XABI ALONSO** FUTBOLARIA

«Denbora igarotzean konturatuko naiz lorpen honen garrantziaz»

**TOLOSA** Espainiako selekzioarekin Eurokopa irabazi berri du; «oso gustura» azaldu da 6-7



Goian, lurreamendi auzoak; behean, Amaratzen. HITZA/N.URBIZU

## Tolosako auzoek ere «gogotik eta ilusioz» ospatu dituzte euren jaiak

**TOLOSA** lurreamendin egun bateko jaiak egin zuten; Amaratzen gaur ere izango dute festa 4



Festan, gasolinarik behar ez duen motorra, dirurik behar ez duen gidariarekin; aurrez aurre moto ikusgarria. AIMAZ

## MOTOR HOTSEN ARTEAN AMAITUKO DA LANGOSTINOEN FESTA

**IBARRA** Goizean zehar moto bira egingo dute eta herrira itzultzean show-a antolatu dute; bazkari legearekin agurtuko dute festa 5



Hemen dago

**308 Sw Berria**

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban Auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno: 943-850337  
Fax: 943-452938  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

## I Inkesta



## Zer egiteko asmoa duzu udako oporretan?

- Etxean gelditu eta inguruko gauzez gozatu. %43.
- Kataluniara, Galizara, Andaluziara... joango naiz, egun batzuk pasatzera. %38.
- Bidaia luze bat egingo dut, hamabostaldi bat gutxienez pasatzera. %19.

■ «Eguzkia nahi dut, eta abuztuan lau egunez edo, Kataluniara joango naiz. Ez dut turismorik egiteko asmorik, hoteleko erritmo motelaz gozatu nahi baitut: urtean behin eta gehienez lau egunez eh?».

■ «Kataluniara, Galizia edo Andaluzia esan beharrean, hainbeste beldurra al dago Espainia esateko? Nik etxea daukat Alicanten eta nirekin batera milaka euskaldun joaten dira horra. Zer erantzun behar ko lukete ni bezalakoek?».

■ «Nik bigarren aukera bozkatu dut, beste bi aukeratan ez dagoelako nire oporretako plana. Zer uste duzu bozkatuko duela Tolodora dijoan? eta Errioxara? eta Extremadurara? Argi dago. Espainiara joango da, besterik gabe. Ez dezagun dena bere onetik atera.



## » Uzturretik

Patziku Perurena

**K**ontu ezaguna dela uste dut, Nafarroa osoan (Beherea barren) Ahozko Ondarea biltzeko martxan den proiektua. Mendialdeko herri euskaldunotan Euskokultur erakundeak hartua du horren kargua, eta bilera frankoren ondoren, neronek hartu nuen, berri, Leitzakoa jasotzeko ardura, anaia Joxean kamerarekin lankide nuela.

Lana nola egin, araudia prestatu erik eman zigun Aritz Ibañezek. Ordu betetik bira bitarteko, hogeit elkarriketa. Leitzarako. Saiatu naiz. Ahal dudana egin dut. Eta, jakina, huts nabarmenak gelditu dira. Ematen du hogeitan aisa jaso litekeela, baina, ez da hasteko ere.

## Ahozko ondarea Leitzan

Bai, gaibatuztan, oso hitzunona zenak ezekoa eman dit. Hori alde batetik. Eta beste aldetik, ohartu naiz, gizaldi batetik bestera izugarri jeitsi dela hizketako grazia eta patxada. Jubilatuta eta aiton amon xahar asko ere kutsatu baitu ohorearen eta presaren gaitz berri honek. Bai, egongozori gabe sumatu dut hitzun asko. Ze pena!... Badira orde dea gustoz eta patxadan aritu direnak, etaberriz ere ariko liratekeenak. Halakoekin aritzeak gustoa ematen du. Eta beti nabariko da haien hitzari darion grazia.

Asko gelditu da bai, jaso gabe. Hasiera bat besterik ez zait iruditu niri. Hortik atera kontuak: lau auzoen testigutza polit bana jaso nahi nuen: Erasote, Gorritaran biak: Egutera eta Ospela, Arkixkil, Erreka eta Sakulo. Jaso gabe gelditu da. Herriko auzune bixiengan gauza bera: Txartikone aldea, Zabalone aldea, Plaza zahar eta berri inguruak... Plazaola trenaren segimendu osoa markatu nuen, auzorik auzo, Kitarraren Buelta arte. Jaso gabe gelditu da. Herri kirola eta Herri Musika,

saika partitu, eta prestatu nuen. Jaso gabe gelditu da. Azken biona, gaitzerdi halere, gairik aipatuenak izaten baitira edozein festatan eta hedabidetan. Eta hola beste gai asko, prestatu bai, baina, jaso gabe gelditu direnak.

Hainbeste kontu eder jaso litezke gusto eta arreta pittin batekin! Oraingoan zintzilik gelditu denari, beste norbaitek heldu beharko lioke, eta lehenbailehen hobe. Dena den, ni prest nengoke gai, galde, eta hitzun zerrendak uzteko. Esate bateko, Astaitzako Museoa hizketan jasoko balitz, Batixta eta Miel Mari uztarrian direla, zer ez litzake aterako?... Ni saiatu nintzen, baina, ezin asmatu uztarria lotzen.

Geure gastuak kenduta, lan honengatik mila eta seirehun euro inguru kobratu ditugu. Horietatik seirehun anaia Joxanek. Hitzun bakoitzari (edo bikoari) surtido kaja eta botila ardo bana eman zaizkio, detaile moduan. Grabazio guziak Euskokultur erakundeak gelditu ditu, zintatan eta disko gogorrean, eta lana gaika hustu eta ordenatu ondoren, hitzun bakoitzari atzera grabazio gordina-

ren kopia banatuko zaio, eta hartara bi datuak konparatzeko aukera izanen du: guk egindako grabazio gordina, eta gero hartatik interneten balekotzat geldituko dena. Honen kopia osoa, berri, Udalak jasoko du.

Bukatzeko esan, lan honen prozesu guziaren berri emanen dela Euskokultur erakundeak lana saillkatu, ordenatu eta amaitu ondoren Leitzan bertan aurkezpena egiten denean. Kopia ere orduan utzilikoa dira. Baina, bitartean ez nengoen batera lasai, gai honen berri eman gabe. Batez ere, zer edo zer hitz egindako horiekin neukan kezkarik haundiena. Ez daukat ahaztuta alerik, eta lan honen inolako segiziorik izaten badu, horiek izanen dira aurreneko, nire partetik behintzat.

Eta nola ez, edozein zalantza izan ezker, deitu lasai 948-141812 telefono zenbakira, eta Aritz Ibañezek nik baino hobeki argituko zaitu. Eta nerekin zuzenean hitz egin nahiko bazenu, berri, deitu: 948-510435 telefono zenbakira. Eskerrik asko deni.

## L Lehen eta orain

## Urritzeta baserria, lehen eta orain

**ANOETA** ● Gaur egun ikastola dago kokatuta, Ergoien auzoaren hegoaldean. Hernaldeko errepidean, Tolosarako errepidearekin lotzen duen adar baten hasieran. Parean Oria ibaia ikus daiteke, Oria ibaiaren gaineko zubi zaharra zuen baserriak, orain alboan industriagunea dago. ANOETAKO BASERRIAK (TOLOSALDEA HISTORIA BILDUMA, JUANTXO AGIRRE-MAULEON)



**Z Zenbakia**

**10**

■ **Garagardo mota.** Daude aukeran Iruran gaur amaituko den VI. Garagardo Azokan. Bertan biltzen duten dirua ikastolarentzat bideratuko dute; aukera izango da gaur 18:00etatik aurrera.

**E Esanak**



«Sexu kontuetan ezartzen dizkiguten ereduak terrorismo hutsa dira»

«Neska batek bere burua modelo batekin konparatzea perspektiba arazo larria da»

«Mutil nerabeak erabat matxakatuta daude Nacho Vidal aktorearekin; pena ematen didate»

«Orain sexuaren inguruan informatuago gaude baina informazio guztia ez da kalitatezkoa»

**NEREA SANCHO**  
Sexologoa (GazteZulo, uztaileko alea)

» **Iritzia**

**Joxan Oiz**  
EUSTko ordezkaria (Euskal Unibertsitatearen Sustapen Taldea)

**D**agoeneko albiste zabaldu da: Euskal Unibertsitateak Tolosan kokatuko du bere lehen egoitza nagusia. Alegia, datozen urteotan eta gauzak ondo bidean, Tolosa *Euskal campusa* bilakatuko da.

Lerro hauen bitartez, ordea, ez dut azalduko Tolosaldeak halako proiektuari zer eskain diezaiokkeen ez eta Unibertsitateak Tolosaldeari zer ekarri ote dion. Une honetan galdera horien erantzunak aurreikusi balitezke ere, Proiektuak orrorrean dituen ezaugarriak aipatu nahi nituzke.

Hasteko egitasmo hau bultzatzen duen taldearen ustetan, erronka, xede, amets edo dena delakoa deituta ere, Euskal Unibertsitatea da Herri honek oraindik bete gabe duen helburuetako bat. Koldo Mitxelena eta Karlos Santamariaren arteko aspaldiko dialektika berri-tuz esan dezakegu Euskal Herriaren baditugula unibertsitateak baina ez dugula Euskal Unibertsitate bat.

Gerra aurreko aldarrikapenak alde batera, UEUK biziberritu zuen behar hori 1973. urtean Donibane Lohizunen egindako sortze bilkuran. Hartara, UEUren sortze-xede haren haziak eman ditu hainbat fruitu euskarazko goi-mailako prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketaren alorrean, batzutan, neurri handi batean, UEUK eraginda eta beste askotan bestelako gune unibertsitario eta ez unibertsitarioetan landuta. Hori gauza jakina da. Aurrerapenak aurrerapen, ordea, segitzen dugu Euskal Unibertsitate-terikgabe.

UEUK berak hartu berri du, ordea, Euskal Unibertsitate sortze-ko lema. Azken bost urteotan har-

# Tolosa, Euskal Unibertsitatearen abiapuntu



tutako erabakiek, antolatutako mintegiek eta egindako ekarpenek abian jarri dute EU sortzeko dinamika sendoa.

Sendotasun hau hainbat eragilek adostutako est ezaugarrien inguruan oinarritzen da. Izan ere, zer ote da Euskal Unibertsitatea? Ez jakin. Hala ere, bost ezaugarri hauen inguruan legokeen zerbait izan liteke:

- Euskaldunon Unibertsitate ele-anitza.

- Euskararen hizkuntza-komunitate eratzeko eta garatzeko erakundea.

- Gizartearen parte-hartzearen sustatzailea, herriaren zerbitzura dagoena eta demokratikoa.

- Euskal Herriaren eraketa soziopolitikorako lagungarria.

- Europako unibertsitate-esparruan homologagarria.

Beste era batera esanda: Euskaldunon unibertsitatea nahi dugu, euskarari lagunduko diona, eredu unibertsitario berri bat leharkeena, Euskal Herria eraikitzen lagunduko duena eta European ofiziala izango dena.

Eta badirudi, ezaugarri hauek adostu zituztenek asmatu egin dutela. Bildu ere, eragile asko bildu baita dagoeneko EUren egitasmoaren inguruan. Alde batetik, berriki aurkeztu den Euskal Unibertsitatearen Aldeko Fundazioak bere baitan hainbat ikuspegi bateratu baititu era formal batean. Bestaldetik, beste hainbeste eragilek, institutu-

ziok, taldek eta iritzigunek agertu dute dagoeneko Proiektuarekiko euren jakinmina, ekarpen edota aldekotasuna.

Lehen pausoak emanda, hala eta guztiz ere, lan handia dugu egiteko. Hamaika langa pasa behar ditugu. Adibiderako, Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioaren helburua da urte honen amaierarako unibertsitateak eskainiko dituen titulazio zerrenda behin-betikoz zehaztea; eta hori ez da lan makala.

Beste erabaki batzuk aurreratu-xe daude, eta horietako bat da ares-tian aipatu dudana Tolosa Euskal Unibertsitatearen campusa izateko egokiera. Hala ere, hemendik bertatik aurrera dezaket ahal dugun neurrian ez dela egoitza bakarra izango. Izan ere, Fundazioak duen helburu sendoetarikoa bat baita Euskal Herri osoa hartzea campus gisa. Hori dela eta, berealdiko saio bat egingo da gutxienez Nafarroan beste egoitza akademiko bat zabaltzeko ez Tolosakoaren dimentsio berekoa baina bai, ahal bada, aldi berean.

Lerro hauen mugek azalpen eta zehaztapen gehiagorako tarterik uztenez digutenez, eta artikulu hau datozen urtetan gauzatu nahi dugun proiektu baten aurkezpen moduko bat baino ez denez, lapur diezaiozun aipua duela 75 urte hildako poetari eta "euskara noranahikoa" Tolosan beste koxka bat lortzeko egokieran dagoela esan dezagun argiro.

## Euripean kanpo libreko lekak eta kalabazinak ikusi ahal izan dira

**Azoka** » Udako fruta izan zen aukeran, San Pedro sagarrak, marrubiak, aranak eta fruitu lehorrak, esaterako.

**PABLO ALBERDI**

Atzoko azoka eguna euripean ospatu zen Tolosan, dagoeneko ia ohizkoa denez. Euriaren eragina nabarmena izaten ari da arlo askoretan, batez ere barazkietan. Oraindik udaberriko espezie bakar baten ere badago, illarraren kasu, eta udakoak pitin bat atzeratura datozte. Atzo kanpo libreko lekak, eta kalabazinak ikusi genituen.

Fruta arloan ere udakoak ikusi genituen. San Pedro sagarrak, aranak, marrubiak eta fruitu lehorrak.

Perretxiko zerrenda zizaz eta ziza horiz osaturikoa izan zen, eta kilo bat gibelurdina ere ikusi genuen mahaietan.

» **ATZOKO AZOKA**

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares. Landareak

Erroneroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4,00
Salbia	1,00	1,20

**BERTAKO PRODUKTUAK**  
**Perretxikoak**

Ziza horia	18,00	-
Ziza	12,00	20,00
Gibelurdina	30,00	-

**Fruta**

San Pedro Sagarra	2,00	-
Marrubia	4,00	6,00
Aranak	3,00	-
Urta	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

**Barazkiak (Kilo)**

Baba	3,00	-
Babarrunzia	8,00	10,00
Ilarra	8,00	12,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00

**PRODUKTU EKOLOGIKOAK**

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

902 402 900 zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)



# Iurreamendiko jai eguna eta Amarozkoko jaiak «bikain»

**Jaiak** » Iurreamendin herenegun jai egun berezia gozatu zuten eta gaur, Amaratzen jaietako azken eguna izango dute.

## NEREA URBIZU

Amarozko jaietz gozatu ahal izan zuten atzo bertakoek, eta baita Iurreamendiko auzotarrek ere, hauek jaiak baino, jai egun bat ospatzen baitute jadanik hirugarren urtez. «Bietan ere giro bikaina izan da», bertako bizilagunei esker.

Amarotzen goiza goibel xamar bazegoen ere, ez zuen jaia zapuztu eta puzgarrietan goizean goizetik saltoka ari ziren haurrak. Beste batzuk triziklo erraldoietan aritzeko aukera izan zuten eta baten bat ere buruhandiak zirikatze gogotsu aritu zen. Azkenean, buruhandiek gezurrezko burua kendu eta korrikaldi batzuk ere egin zituzten. Bitartean, musikariek San Blas elkartean hamaiketako egin zuten.

## Ajoarriero txapelketa

Puzgarrien ondoan ajoarriero txapelketako partaideak bildu ziren arkupetxo batean eta guztira 16 kazola prestatu zituzten. Batzuk errezeta ere eraman zuten, non-bait ez ziren haien eguneroko sukaldaritza horretaz fido...

Sukaldeak Udalak utzi zizkieten, eta festa batzordeak, berriz, partaide bakoitzari kilo bakailao bana eman zion. Aurtengo bakailao kazolarik goxoen Martin Garaialderena izan da, Karnele eta Rosi eta Ramon Zubeldiaren aurretik. Denak jangarriak ziren, eta noski, koadriletan banatuta prestatutako jan egin zuten bertan: 130 lagun bildu ziren bazkarian.

Bitarte horretan, haurren dantza ikuskizuna izan zen: dantza modernoa eta gimnastika erritmiakoaren arteko nahasketa moduko bat jorratu zuten neskatoket amaroztarren begiradapean. Ondo ikasia zuten egin beharrekoa, landuazuten.

## Iurreamendikoen festa

Duela hiru urte hasi ziren Iurrea-



Bakailaoa ajoarriero eraran prestatzen 16 kazola aurkeztu zituzten. N. URBIZU

mendin auzokoen arteko festa bat ospatzen eta ohiturari jarraituz herenegun ekin zioten aurtengoari. Eguraldiak ere lagundu zien eta horrela 18:00etan txupinazoa boiratz piztu zuten jai giroa. Ondoren, Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartasako arduradunak egindako zezenekin, entzierroa korritu zuten eta umeek «izugarri» gozatu zuten. Zezen eramaileak nekatutakoan (umeak ez bezala), zezenak gorde eta umeentzako prestatutako jokoein jarraitu zuten festa.

Umeek jolasean aritzeko aukera zabala zuten betiko jokutatik hasi eta jolas lasaiagotan aritzeko aukera ere (margotu, pitxiak egin...). Afalordua iristerako barriketari bisita ugari eginak ziren bizilagunek eta horrela mahaian edota ku-

peltxoaren inguruan ez zen tertuliarako gairik falta izan; ondoren, izan ziren etxera lehenago igo zirenak eta gaugiro aproposa aprobetxatuz gehiago luzatu zirenak.

Jai hau ospatzen eta auzokoen artean antolatzen den festa bat izanda, esan behar da auzoko jendea inplikatzeko dela «eta horrek laguntzen duela guztion artean giro ona sortzen».

Era berean, urtero berrikuntza-aren bat gehitzen zaio jaiari eta ildo horretatik aurtengo kamisetak egin dituzte auzokoei, aukerarako Iñaki Epelde margolariak egindako logotipoarekin, jai giroa eta auzokoen identitatea indartzeko asmoz. Datorren urtean ere izango dute identitate hau indartzeko asmoa, berriz ere jai eder honen inguruan.

## » AMAROSKO GAURKO EGITARAUA

- **08:00.** Garbiketa orokorra Beti-koak taldearekin.
- **09:30.** Iurreko Andre Marian meza Amarozkoko hildakoen alde.
- **09:30.** Tolosako txistulariak.
- **10:30.** Erromeria. San Blaseko ermitan elkartu barrikotea egiteko eta auzoan barrena jaitsi kalejiran.
- **11:30.** Amarozkoko artisauek eta eskulanen erakusketa eta erakustaldia, Beti-Gazteak antolatuta.
- **12:00.** Toka txapelketa Ekaitz tabernaren aurrean.
- **13:30.** Fatxada eta balkoi lora-tuen sari banaketa.
- **14:30.** Auzoko bazkaria.
- **18:30.** Amarozkoko dantza taldea. Ondoren, auzoko *Aurreksua*.
- **20:00.** Afari merienda: sardina erreak, sagardoa eta Pixi Dj-a.
- **21:30.** Euskal abestiak Ekaitz tabernaren aurrean.



Triziklo erraldoiak izan ziren haur eta gazteentzat Amaratzen. N. URBIZU



Iurreamendin jai giroko eguna ospatu zuten ostiralean, jadanik 3. urtez. HITZA



hitza®

# hitza

elastiko berriak salgai  
hur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
**HITZA**ren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



# Gaur amaituko da VI. Langostino Moto Festa

**Ibarra** » Atzo hasi eta gaur amaitu. Asko gogoz geratuko den arren asteburuak horrelako gauzak ditu.

betetzen joan zen eta iluntzean afarian giro aparta bizi izan zuten Uzturpe Ikastolan. Aipatu bertan antolatuta zutela akanpada gunea.

## Gaur festa amaiera

Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatutako festa gaur amaituko da. Goizean zehar moto bira egingo dute. Herrira itzultzean moto Show-a egingo da eta jaiari amaiera emateko bazkaria ospatuko dute 14:00etan. Egun hauen inguruan zer esana izango dute.

## » EGITARAUA

### Uztailak 6, gaur

■ **09:00etatik 10:00etara.** Gosaria.

■ **10:30.** Motorrekin bira. Bidaian zehar hamaiketako egingo da.

■ **13:00.** Ibarrara itzulera.

■ **13:00etatik 13:30era.** Team Levetarque-Show Stunt frantziarren emanaldia.

■ **14:00.** Bazkaria eta festa amaiera.

## ASIER IMAZ

VI. Langostino Moto Festa atzo jarri zen martxan Ibarren. Arratsaldean jokuak eta erakustaldiak eskaini zituzten moto gidariek. Tanttaka-tanttaka herria motozalez



Langostino Moto Festaren lehen eguneko irudiak: gasolinarik behar ez duen motorra, dirurik behar ez duen motogidariarekin. Akanpada gunea eta jolasak. A. IMAZ



## Tolosaren txapel handia gogoratuz

**AMEZKETA** » XIX. Joxen Tolosa Txapelketa atzo hasi zen gazte mailako partidarekin. Egunean zehar guztira sei norgehiagoka jokatu ziren Amezketa pilotalekuan. Uda guztian zehar, asteburuetan, txapelketa-

ko partidak jokatuko dituzte eta finalak irailaren 14an jokatuko dira. Alde batetik gazte mailakoa eta bestetik nagusia. 1989. urtean Tolosak Retegiri irabaziz finala gogorarazten du Txapelketa honek. A.

**@ Inkestak.** Sartu gure web orrian eta erantzun *Inkestak* atalean agertzen diren galderei. Oporrak gainean dira eta zer egiteko asmoa duzu jai hauetari? Aukeratu zure erantzuna: Etxean geratuko naiz; bidaia luze bat egingo dut ala inguruko herrialde batetara joango naiz. Zure erabakiarekin batera jendeak bozkatu duena ikusteko aukera eskaintzen dizu gure webguneak. Horretaz gain iritzia ere utz zenezake, jendeak irakur dezadan eta zuk eurena irakur dezazun:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Begiralea.** Begirale tituludun pertsona behar dugu uztailearen 10etik 20ra, udaleku txikiak. Deitu 628 94 72 53 telefonora.

■ **Zerbitzaria.** Tolosaldeko okindegi batek, pertsona bat behar du arratsaldean lana egiteko. Bidali argazkiarekin CV-a 142 posta kutxara, 20.400 Tolosa.

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna

behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ez da udarako bakarrik. Interesatuak deitu: 685 72 20 47/635 71 24 41.

### SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakietara: 657 23 0011/634 9194 82.

## Renobalesen 22-17 galdu du Elgetako finala

### A. IMAZ

Ugaitz Renobalesen 22-17 galdu zuen herenegun gauean Mikel Urrutikoetxearen aurka Elgetako Txapelketaren finala. Lau t'erdian jokatu zen norgehiagoka eta hasieratik bere jokua ezin aurkitu ibili zen alegiarra. Botilero lanetan Luis Galarraga eduki zuen.


### «Lotuta eta urduri hasieran»

Neurketa maldan gora jarri zitzaion 11-1 Renobalesi. «Oso urduri aurkitzen zen. Askotan gertatzen da hau; Ugaitzek 22 urte ditu eta besteak 18. Gazteagoaren aurka jokatzeak ardura eta beldurra esan nahi du eta Ugaitz oso lotuta irten zen. Ez jokatu, ez pilotari eman,... Fisikoki ondo zegoela

ikusten zuen baina ez zegoen partidari», aipatu zuen Luis Galarragak.

### «Gakoa: sakean hutsa»

Hala eta guztiz ere, «pixkanaka sinestuz joan zen» eta 17-15 jarri zen Renobales, bi tantura. Partidari buelta emango ziola zirudienean, sakea motz atera zuen, «finaleko gakoa izan zen sake hori. Berriz ere partidatik irten zen eta hortik aurrera itsu itsuan aritu zen. Amaieran pena, norbaiti opa banion Elgetako txapela Ugaitzi zelako. Finalera iristeko ilusioa zuen eta lortu zuen. Gure aldetik, HITZA eta Aurrera Saiaz pilota eskolatik animo handiak eman nahi dizkiogu Ugaitz Renobalesi».



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**E Elkarrizketa****XABI ALONSO** › Futbolaria

**Kirola** » Futbolari tolosarra «oso gustura» azaldu da Eurokopa irabazi ondoren; Txapeldunen Ligaren ostean bigarren lorpen handiena izan da.

**INIGO TERRADILLOS**

Espainiako selekzioarekin Eurokopa irabazi berri du Xabi Alonso (Tolosa, 1981) futbolariak. Realean jokatu ostean, duela lau urtetik Liverpoolleko jokalaria da. Lorpen berri honen inguruan, bere etorkizunaz, eta Realaz hitz egin du tolosarrak.

**Zer moduz sentitzen zara Eurokopa irabazi ostean?**

Oso pozik eta gauzak ondo egin ditudanaren sentsazioarekin. Denboraldia era bikainean bukatu da. Denontzat oso garrantzitsua izan da Eurokopa irabaztea, izena eta ospea emango dio taldeari eta jokalariei eta hori profesionalen artean oso garrantzitsua da.

**Zer suposatzen du zuretzat titulu honek?**

Asko. Indibidualki oso garrantzitsua da, palmaresarentzat beste titulu garrantzitsu bat daukazu. Hemendik urte batzuetara, atzera begira astean, hori ikusten duzu titulu honek zer nolako garrantzia duen.

**Zure parte-hartzea Eurokopian nolakoa izan da? Zer balantze egiten duzu?**

Jokalaria guztiei gustatzen zaigu titular bezala hastea, baina ikusten duzunean beste taldekide bat paper ona egiten ari dela, bakoitzak bere lekua non dagoen jakin behar du. Partida guztiak bat izan ezik aulkitik hasi ditut, baina minutu dezente jokatu ditut, paper garrantzitsua eduki dut. Jokatu ditudan minutuetan oso gustura aritu naiz, eta uste dut nire aportazioa ere garrantzitsua izan dela taldearentzat. Kontent geratu naiz.

**Titular moduan hasi zinen partidetan jokalaria onenaren saria jaso zenuen.**

Sailkatuta ginen aurrera egiteko, beraz, hirugarren partidatan, Greziaren aurkakoan, titular moduan jolasten ez genuenoi aukera eman zigun selekzionatzaileak hasieratik hasteko. Partida nahiko txukuna atera zitzaidan, eta oso gustura aurkitu nintzen zelaian, eta partidaren jokalaria onenaren saria eman zidaten. Nik merezi nuela sari hori ikusi zuten, beraz, ni kontentu hori jasotzeagatik.

**Taldean txapeldun izatera iritsiko zinatela uste al zenuen; itxaropenik ba al zenuen?**

Egia esan, pixkanaka-pixkanaka joan da igotzen taldea. Bagenekien talde ona zela, baina askotan izan dugu talde ona eta azkenean final-laurdenetara iritsi izan gara. Beraz, bagenekien pixkanaka joan behar



JON ORDÓÑEZ

**«Denbora igarotzean konturatuko naiz Eurokopa irabazteak duen garrantziaz»**

genuela gorantz. Lehenengo hiru partidak onak atera zitzaizkigun, eta gero, final-laurdena, Italiaren aurkako partida oso zaila izango zela bagenekien guztiok. Kanporaketa hori pasatzea oso garrantziki-

**Denboraldia era bikainean amaitu da; gauzak ondo egin ditudanaren ustea dut**

**Jokatutako minutuetan oso gustura aritu naiz, eta uste dut nire aportazioa garrantzitsua izan dela**

**Jendeak babesten zaituela ikustea oso garrantzitsua eta pozgarria da**

tsua izan zen, eta konfiantza handia eman zigun.

**Taldean giro oso ona duzuela esan duzue. Hori oso garrantzitsua izango da futbola bezalako kirol batean.**

Aurten bide egokian joan dira gauza guztiak, eta ez dugu inolako arazorik izan gure artean, giro oso ona izan dugu. Ingurua ere nahiko kontrolatua eduki dugu. Gero hau dena zelaian nabaritu egin da, eta ondo jokatu dugu.

**Zer sentitzen da Eurokoparen kopa eskuetan hartzean?**

Zaila da azaltzen. Urte askotako helburua izan da, beraz, lortzen duzue... Momentuan ez dakizu benetan zer suposatzen duen, baina uste dut denbora bat igarotzen denean konturatuko garela zer garrantzia duen.

**Zaleek ematen duten babesa oso garrantzitsua izango da.**

Behin txapelketa amaitu eta taldeetik ateratzen zarenean, eta hona iristean jende guztiak zoriontzin zaitu, eta hori oso pozgarria da. Nabaritzen duzu Eurokopak zer nolako jarraipena izan duen, jende askok partidak ikusi dituela, eta esker on hori jasotzea zure inguruko jendearengatik oso garrantzitsua eta polita da.

**Zure gertukoak ere zorrotzen izango dituzu une hauetan.**

Inguruko jende guztia oso pozik dago lorpen honekin. Nere neskalaguna eta semea, esaterako, han izan dira, babesa ematen, eta genituen egun librean elkarrekin igaro ditugu. Gertukoak asko jarraitzen dute nire ibilbidea, eta horrelakoak bezalako txapelketak ondo bukatzen direnean denak oso gustura egoten dira.

**Nori eskaintzen diozu titulua?**

Inguruko jendeari. Nagore nire andregaiari, Jon nire semeari, gurasoei eta anaiari. Gero, selekzioari begira, Genaro Borrás medikuari ere eskaini nahi izango diogu talde bezala. Urte askotan izan zen selekzioaren medikua, eta duela gutxi hil zen; guk badakigu asko gozatuko zuela bizitu izan balu gure-

kin batera Eurokoparen garaipena, horregatik berari eskaini nahi genion.

**Omenaldiekin jarraituz, Arkonada ere omendu nahi izan zenuten.**

Palop atezainaren kontua izan zen. Niretzat sorpresa bat izan zen ere bai. Oso detaile polita eta hunkigarria izan zen, eta Arkonadak asko eskertu zuen.

**Txapeldunen Liga irabazi zuenuen 2005ean Liverpoollekin. Badakizu, beraz, zer den txapelketa handi bat irabaztea.**

Hura oso handia izan zen. Desberdina da, gauza bat klubarekin irabaztea baita, eta bestea selekzioarekin. Oso lorpen handia izan zen, lortu zen modua oso handia izan baitzen.

**Nola gogoritzen duzu Tolosan futboleko jokatzeko hasi zineneko garaia. Urte haietan esango bali-**

**zute gaur egun lortu dituzunak lortuko zenituela?**

Ez nuen pentsatzen inondik inora honaino iristea. Tolosarekin jokatzen nuenean, Berazubiko txapelketetan -eta futboleko jokatzea gustatzen zitzaidan, nire anaiarekin, lagunekin, edozein unetan, ikastolatik irtetea, denbora libre genueanean... Baina, ez nuen helburu bezala futbolaria profesionala izatea. Besterik gabe, gustatzen zitzaidalako egiten nuen. Futbolaria profesionala izatearena oso urrutik ikusten nuen, eta oso zaila zela banekien. Gero, pixkanaka-pixkanaka hazten joaten zara, aurrera egiten duzu mailari dagokionez, eta konturatzen hasten zara futbolaria izan zaitzakeela goiko mailatan.

**Jarraitzen al duzu Ingalaterratik Reala? Aurten denboraldian nola ikusi duzu?**

Bai, noski, jarraitzen dut. Zale bat gehiago banintz bezala jarraitzen dut, baina, nire kasuan barruan dagoen jendea ezagutzen dudalarik, eta horregatik jarraipen berezia egingez. Une gogorak igarotzen dituzte Realekoek, eta bazirudien une hobeak iritsiko zirela azken partida horietan igoera gertu izan baitzuten, baina azkenean ez zen posible izan.

**Zuk ere sufritu duzu taldearekin, beraz.**

Bai, azkenean pena handia izan da, oso gertu izan dutelako. Dena den, horrelakoa da futbola, eta orain etorkizunari begiratu behar zaio.

**Azkenean Juanma Lillo tolosarrak jarraituko du Realaren entrenatzaile bezala beste denboraldi batez. Zer iruditzen zaizu egingo duela? Taldeak mailaz igotzea lortuko al du?**

Espero dut baietz. Nire ustez, nahiko lan txukuna egin du Lillok, eta horregatik beragan konfiantza izatea oso garrantzitsua da, eta taldeak egonkortasun bat izatea ere bai.

**Txapeldunen Liga irabaztea oso lorpen handia izan zen; Eurokopa desberdina da**

**Lillok lan txukuna egin du, eta beragan konfiantza izatea garrantzitsua da, egonkortasunagatik ere**

**Momentuz, Liverpoolen jarraituko du; gustura nago, klub ona da, gauzak ondo egiten dituzte**



Goian ezkerrean, iragan berri den Eurokoparen Espainiako selekzioarekin, eskuinean Liverpoolen; beheko argazkian, anaia Mikel, Igor Jauregi eta Gari Urangarekin, Realean. HITZA / LM.

**Zure etorkizunari dagokionez, Liverpool ala Juventus dira dirudienez aukerak. Non jokatu duzu hurrengo denboraldian?**

Mementoz Liverpoolen jarraituko dut. Ez dago mugimendu gehiago, beraz, uste dut horrela izango dela. Une honetan kontu horietatik at nago oportetan nago-elako, eta lasai nago. Ikusiko da zer gertatzen den.

**Gustura zaude Liverpoolen orduan?**

Oso gustura. Oso klub ona da eta jatorria. Gauzak ondo egiten dituzte, beraz, pozik nago.

**Erraza al da hango bizimodura ohitzea?**

Bizimodu desberdina da. Ohitzen zarenean eta zailtasunak ez dardenean bestelakoa da kontua. Orain gustura nago, ezin gara kezatu.

**Liverpool bezala talde handi baten eskaintza bati ezetz esatea zaila izango da.**

Orain dela lau urte fitxaketa egin nuenean uste nuen une hori une egokia zela ziretzat, beste bide bati ekiteko, beste esperientzia bat izateko. Lau urte hauetan asko gozatu dut, eta uste dut erabaki egokia hartu nuela.

**Hemendik urte batzuetara non ikusten duzu zure burua?**

Ez dut ikusten. Ni pixkanaka pixkanaka nijo. Gauzak datozen bezala hartzen dituzu, aldatzen dituzu, eta egokitzen zara egoera berrietara.

**Zaila izango da orain arte egin duzuna kontuan hartuta lorpen handiagoak eskuratzea.**

Beti saiatu behar da gauzak hobetzen eta gauzak lortzen. Ez dut begiratzen zer lortu duan orain arte, nahiago dut begiratzea zer datozen hemendik aurrera eta zer gauza egin ditzakean hobetzeko. **Imajinatzen al duzu hemendik urte batzuetara Euskal Selektzioak Eurokoparen parte hartzea?** Ez dakit zer gertatu litekeen, baina, gauza asko gertatu beharko lirateke hori posible izateko, beraz, ikusiko dugu zer gertatzen den.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leizta:** 687 410 022. anoeta/leizta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leizta:** 687 410 032. ibarra/leizta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizta/Leizta:** 687 410 118. leizta/leizta@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leiztaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Langostino Moto Festa: 09:00etatik 10:00etara gosaria; 10:30etik 13:00etara moto ibilaldia; ondoren Team Levetarqueren akrobaziak; 14:00etan bazkaria.  
■ **Tolosa.** Hurrengo denboraldian Amaroz kadete mailako taldean jokatu nahi duten gazte guztiak astehena, uztailak 7, eta astearte, uztailak 8, arratsaldeko seiretan, Usabalgof futbol zelaira azaldu zaitzekete kirol arroparekin.

### Jaiak

■ **Orexa.** Sanferminetako txupinazoa botako dute igande eguerdian udaletxeko balkoitik, denak zuri-gorritz jantzita. Ondoren, bazkaria Kontsun bertsolari eta musikariekin. Izen-ematea, 943 682154 telefonoan.

### Irteerak

■ **Anoeta.** Promozio bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokikoek Briones herrira, Errioxan, hilaren 22an, upategi bat bisitatuz. Izen-ematea, Biltokian 18:00etatik 20:00etara, 10 eurotan.  
■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuen elkarteak Salamankara irteera antolatdu irailaren 14tik 19rako. Bazkideek 226 euro eta ez bazkideek 231 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko.

### Mendi irteerak

■ **Villabona.** Oza - Atxerito (2.358 m) - Zuriza mendi irteera antolatdu Aizkardi mendi elkarteak hilaren 13rako. Izen-ematea, elkartearen.

### Kirolak

■ **Tolosa.** Berazubín jokatu den Pala Txapelketarako izen-ematea, estadioko bulegoetan edo 656 719263 eta 943 671749 telefono zenbakietan (20 euro, Tolosa CFko bazkideek, 10 euro).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Ollarreaga, J. Korreokalea, 2. 943 670128.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43, 112.  
**BIHAR**  
■ **Tolosa.** Ollarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Leizta.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

# Garagardoaren helburu anitzak

**Irura** » Garagardoaren kolorearen atzean zapore eta helburu ezberdinak aurkitzen dira Irurako VI. Garagardo Azokan.

### ASIER IMAZ/NEREA URBIZU

Irurako VI. Garagardo Azoka herenegun jarri zuten martxan. Atzo eta gaur ere kupelak zabalik egongo dira, baita zer jan eta zer erosteko aukera ere.

### Musika kontzertuak

Saltxitxa, ukondo eta bakaillaoak egarria sortzen baldin badu, garagardoa edan behar da egun hauetan Iruran. Garagardoak gorputza mugitzeko gogoaz sartzen baldin badu, kontzertuak ikusi eta entzun behar dira Garagardo Azokan; 500 lagun espero zituzten afarian.

Herenegun Ibaia taldeak eskaini zuen euskal musika emanaldi «goxoa» eta atzo Iban bakarlarria entzuteko aukera egon zen. Ondoren Irurako rock gogorraren doinuak zabaldu zituzten Nekro taldeko kideek oholza gainetik.

### Ikastola berriaren alde

Kilometroetako arropak saltzeko guneaz gain, Garagardo Azokan ikasleek eginiko eskulanak aurkitzen dira salgai. «Irabazitako dirua ikastolarako ematen dute ikasleek. Honen ordainetan azken egunean afari bat egiten dute».



Ikastolako haurren eskulanak saltzeko jarritako postua eta Garagardo Azokaren bigarren eguneko prestaketak. A.I./N.U.

## A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Uztailak 4, 5 eta 6